

## BAKEZALE IZAN!

1

Seme-alabok laster  
jatorku joatea,  
Jaungoikoaren nahia  
dedila betea.  
Entzun gaur gure gogo  
ta borondatea:  
danen gainetik zaindu  
etxeko bakea.

2

Ez eiozu inori  
izan gorrotorik,  
ez kalterik opatu  
ezta antzekorik.  
Ez hartu asmo txarrik  
kalte egitekorik,  
ez da ez zerurako  
inor holakorik.

3

Ez sortu burrukarik,  
ez galdu bakerik,  
jakinaren gainera  
ez egin kalterik.  
Kristo gugaitik hil zan  
errukiz beterik;  
hori barik ez dago  
kristau izaterik.

4

Edozein gizon dogu  
onzale ta ona,  
berez on egiteko  
asmotan dagona.  
Uste ona zor jako  
eta hartuemonia;  
hortik sortu leiteke  
danon zoriona.

5

Gizon guztiok gara  
arriba ta anai,  
eskubide bardinak  
bizitza ere bai.  
Hau da gure fedea  
ta gure onginahi:  
danok bizi gaitezen  
bakez eta alai.

6

Danen gainetik zaindu  
bide on zuzena,  
egizko bakea da  
hortik datorrena.  
Oker eta guzurrik  
dakarre azkena:  
bake-plantak eginda  
gero hondamena.

7

Herri bakoitzak dauka  
bere nortasuna,  
bere eskubideak,  
bere etorkizuna.  
Zaindu buru-bihotzez  
danen jauntasuna,  
danon kalterako da  
baten hustasuna.

8

Alkar maitatzen jardun  
hori da lehenbizi,  
dana alkarbanatuz  
ondasun ta bizi.  
Norberekoikeriak  
alde baten itzi,  
jauntxokeriak kenduz  
bakeari eutsi.

9

Eginbeharrak bete  
ez izan bildurrik!  
Okerra salatuta  
ez esan guzurrik.  
Jokatu beti zuzen  
ez uka agurrik;  
burrukatik ez dator  
gauza on apurrik.

10

Nonahi ta beti jarri  
bakearen alde,  
mundua zatitzeko  
bidetatik alde.  
Armaz ta militarrez  
zer datorren galde:  
hobe bakea karu,  
ez gerra debalde.

11

Jaso seme-alabok,  
gure erentzia,  
batez be, bizitzako  
esperientzia:  
Bakean bizitzea  
da penitentzia,  
hazi ona zabaldu  
ta txarra kentzia.

12

Bada gaur zereginik  
Jesusen Elizan,  
beti zintzo agertuz  
kristau onen gisan.  
Argi ta zoli jardun  
gure herrigintzan;  
horra danak batera:  
BAKEZALE IZAN.

A. MARTZEL